



Jaio berritan estresa pairatzeak heldutan depresioa izateko arriskua nola handitzen duen argitu dute

Science aldizkariak argitaratutako lan baten arabera, jaio eta handik egun gutxira sagu kumeek estresa pairatzeak epe luzeko eragina du haiengan. Hain zuzen ere, ikusi dute estres goiztiarra pairatu duten saguak heldutan sentiberagoak direla egoera estresagarriekiko eta depresiorako arrisku handiagoa dutela.

[Ikerketak](#) horren atzean da-

goen mekanismo molekularra argitzeko balio izan du.

Estres goiztiarra eragiteko, sagu jaioberriak amarengandik 2-4 orduz banandu dituzte, eta amaren arreta desordenatua jaso dute. Heldutan egoera estresagarrien aurrean jarri dituztenean, ikusi dute hasieran estresa pairatu zutenek harreman sozialak ekidin dituztela eta egoera

zailen aurrean mugiezin geratu direla. Esaterako, igeri egitera behartzen dituen egoera baten aurrean jarri dituztenean, aurrera egin ezinik geratu dira.


Aurretik bazeuden ikerketak estres goiztiarrak epe luzera depresio-arrisku handitzen duela frogatzen zutenak, pertsonekin zein beste animaliekin egindakoak, baina

argitu gabe zegoen zer gertatzen zen haien garunean. Ikerketa honek erakutsi du estres horrek garuneko eremu tegmental bentranean —hain zuzen gogo-aldartean eta depresioan inplikaturako dagoen eremuan— geneen erregulazioa aldatzen duela. Hain zuzen ere, Otx2 transkripzio-faktorearen kontzentrazioak behera egiten du eta horrek 6 generen espresioan eragiten du.

Estresa pairatu gabeko saguei Otx2 transkripzio-faktorearen kontzentrazioa nahita eraldatu dietenean, ikusi dute Otx2-ren kontzentrazioa txikitzeak estres biologikoarekiko sentikorragoak bihurtu dituela, estres goiztiarra pairatu balute bezala; kontzentrazioa handitzeak, ordea, bizitzaren hasierako estres horren ondorioak murrizten ditu. Hortaz, lanaren egileek adierazi dute Otx2-ren erregulazio-mekanismoa ulertzeak lagundu lezakeela bizitzaren hasieran gerta litezkeen ez-beharren eragina murrizteko moduak asmatzen. ●

Eguzkiaren espikulak nola sortzen diren azaldu dute

Eguzkiaren gainazaleko plasma-zorrotadak zehazki nola sortzen diren azaltzen duen eredu bat sortu dute. Espikula deitzen zaie plasma-zorrotada horiei. Egunero milaka espikula sortzen dira, eta haietan segundoko 50-150 kilometroko abiaduran ateratzen da plasma Eguzkiaren gainazaletik koroarantz. Badi-ra ehun bat urte behatzen direla, baina ez zegoen oso argi nola sortzen ziren. Orain, eredu bat sortu dute, eta ikusi dute eredu horrekin egindako simulazioak guztiz bat datozela Eguzkian gertatzen denarekin. Hala, lortu dute zehaztea Eguzkiko plasmaren eta eremu magnetikoaren arteko zer elkarrekintza fisikoren bidez sortzen diren espikulak. Eta, aldi berean, horrek azaltzen du, baita ere, nola espikulen eraginez hain temperatura altua hartzen duen Eguzkiaren kanpoko atmosferak. [Science aldizkarian argitaratu dute lana.](#) ●



ARG.: NASA/TRACE